

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

790

EBAZPENA, 2015eko otsailaren 6koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, dopinaren aurkako legedia Dopinaren aurkako Mundu Koder a egokitzeari buruzko Legearen aurreproiektua jendaurrean jartzen duena.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak dopinaren aurkako legedia Dopinaren aurkako Mundu Koder a egokitzeari buruzko Legearen aurreproiektua egin du. Proiektu hori Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen arabera izapidetu behar da.

8/2003 Legearen 8.1 artikulua arabera, «Herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrekin entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean jarri beharko dira».

Hori dela-eta, Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluekin bat etorritik, aipatutako aurreproiektua jendaurrean jartzen da, eta, horretarako, hogeitun egun balioduneko epea nahikoa dela jotzen da; epe hori iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko da.

Azaldukoagatik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zituen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 6. e) eta 25. artikuluen arabera,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Dopinaren aurkako legedia Dopinaren aurkako Mundu Koder a egokitzeari buruzko Legearen aurreproiektua jendaurrean jartzea, hogeitun egun balioduneko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Bigarrena.– Epe horretan, edozein pertsona fisikorik edo juridikorik, publikorik edo pribatuk kontsultatu ahal izango du legearen aurreproiektua eta egokiak iruditzen zaizkion alegazioak jarri ahal izango ditu Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz, PK 01010), Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan (www.euskadi.net) eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko atarian (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net).

Vitoria-Gasteiz, 2015eko otsailaren 6a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.